

Astekaria

BARREN elgoi

Organu emaleak biziak salbatzeko



LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

- 3 ZENBAT BURU HAINBAT ABURU**
"Gaitzizenak" Gotzon Arrieta
- 6 ERREPORTAIA**
Krosa 15 iruditan
- 8 ASTE HONETAN**
Zergatik izan organu eta odol emale?
- 16 BERBETAN**
Koldo Lizarralde: "Lehen jendea elkartuago zegoen"
- 17 ELGOIBARTARRAK GOGORATUZ**
Jose Luis Ansola (Txanbolin)
- 18 KIROLA**
Elkarrizketa: Patxi Arriola
San Anton Pilota jaialdia
- 20 ELKARTEETATIK BUELTAN**
Argia: Fedea sendotu otoitzaren bidez
- 21 KULTURA**
282 lan "Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketeta"n

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak.....	461111
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak.....	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria.....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpeketasun Z..	7410 08
Odol Emaileen elkarteak.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua.....	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....	740296
Zaharren Biltokia.....	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 44 41
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

farmaziak

- 22, larunbata: Yudego
- 23, igandea: Yudego
- 24, astelehena: Bidasolo
- 25, asteartea: Bidasolo
- 26, asteazkena: Bidasolo
- 27, osteguna: Bidasolo
- 28, ostirala: Bidasolo

okindegia

23, igandea:
FOTERO



HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

KAZETARIA:

Ainhoa Lodoso

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Ina Garagarza, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNAK:

Imanol Larrañaga, Inaxio Garmendia

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Gaitzizenak

Bata Pikua dela, bestea Batu; hango hari Pitu deitzen omen diote eta besteari Boti. Hamaika buruhauste izango

dituzte makina bat gurasok jaiotzeko dagoen seme edo alaba kuttunari ahalik eta izenik politena ematen, baina etxean konpondutakoa kalean lardazu behar, nonbait, eta hor darabiltzagu, parra-parra, inolako kargurik gabe, bidezko izenak agiri ofizialetara murriztu dituzten milaka izengoiti.

Ez natorkizu, irakurle maitea, sasi izenen gaitzespen bat egiteko asmoz: etsai gehiegi neregantuko nituzke horretan hasiko banintz. Egia esan, ez naiz inoiz gertaera honen komenientziak edo eta desegokitasunak neurtzen aritu. Ez naiz ni horren epaile. Nik neuk ere, ezin ukatu, noiznahi darabiltzat ahotan, lagunartean, berezko izenei uko eginaz. Eta ongi ez baneritzo neuk eman beharko nuke lehen pausoa baina betidanik iragan den

fenomenua izaki. Nork ez du izan egun, edo bere bizitzan barrena, bere ingururik gogokoenean besterik ez bada, izenaz gainetikako gaitzizen bat? Ezetz dioenak bota dezala lehenengo harria.

Dena den, berezko izenez ez deitze hau norbaitzuegan urrutiegi joan ote den susmoa daukat eta urrunegi joate honek badakizu arrazoiaz kanpo uzten duela gizakia. Hala nola, itxuraz beste zereginik ezean, zapping madarikatu horrek jota, telebistako katerik txarreneko programarik txarrenari begira ari nintzaiola, hara non deitzen dion Kuxki emakume batek bere senarrazen adineko gizon mardul bati, "cariñosamente" alegia. Ez pentsa momentuan irten zitzaionik; eta egun eguzki deitzen omen dio.

Jazoera honek behinola mendian ezagututako senar-emazte bat gogorarazi zidan. Hauek, hara hor bitxikeria, Antxon izeneko txakur bat zuten.

Gotzon Arrieta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

• Zergatik egoten dira gau guztia piztuta Mintxetako argiak?

• Udal kirol Teknikariak hiru arrazoi eman dizkigu:

- 1.- Seguritatea.
- 2.- Larrialdiko argiak izanik gastu txikia dutelako.
- 3.- Horrelako toki bat ilunpean egonez gero, egunez gauza "ez atseginekin" topo egiteko arriskua dagoelako.



KEXAK

Ez dago deretxorik igande gauean zegoen eguraldiarekin, EGAN taldea Plazan ipintzeko. Umeak blai-blai eginda etorri ziren etxera. Gero katarroak izango ez dira ba!



TXALOK

Juan Mugerza kroseko aurkezleak txalotu nahi ditut euskarari eman zioten tratamenduagatik. Ea aurrerantzean ere berdin jarraitzen duten.

ESKUTITZAK

Denok berdina egingo bagenu...

Errege bezperaren bezperan gertatutako gertakizun txiki bat kontatzera natorkizue.

Goizean kalera atera nintzen eta erloju polit bat topatu nuen lurrean. Hasieran poz bat sentitu nuan niretzako izango zelakoan, baina nire barruan erloju horrek bere jabea izango zuela pentsatu nuen eta udaltzaingora eraman behar nuela. Horrela egin nuen. Udaltzaingoa datuak hartu zizkidaten eta epe bat igarotakoan jabea azaltzen ez bazan erlojua nirea izango zela esan zidaten, aurkitutako gauza guztiakin horixe egiten zutela eta.

Egun hartan bertan arratsaldean deitu zidaten jabea azaldu zela esanaz. Nire barruan berriz ere poz handia sentitu nuen, jabeak ere erlojua aurkitzean sentituko zuen poza imaginatuz.

Hurrengo egunean, hilak 5, errege roscoi haundi bat ailegatu zen nire etxera. Nere betebeharra erloju hura udaltzaingoa uztea

zen, baina niri roscoi eder hura oparitzea ez.

Hemendik detaile hori eduki zuana eskertu nahiko nuke. Eskerrikasko.

M.V.

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Kezka, iritzi, galdera... adierazteko aukera duzue bertan.

Eskutitzak, idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NANA izan beharko ditu.

Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inzialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzentzat.



Tel: 74 25 95

 *Afari merkeak*

- * Kazuelatxoak
- * Oilasko erreak (aurrez eskatu)

Hemendik aurrera
EGUNEROKO MENUIAK
650 pta.

Aurrez enkargatu ezkerro, hobe!

Logopedia Zentroa



Isabel Gil Arrocha

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

Bidebarrieta, 27-B
Tel. 11 84 71 EIBAR



OJANGUREN

Aste honetako erretratua ere **Ongarrik** bildu eta **Udal Liburutegiak** lagatakoa da. Juan Mugerza Krosaren zaratak oraindik amaitu ez direnez (eguraldi txarraren ondorengoak sufritu duenik ere izan da gure artean), gaurkoan ere saltakalariak izango ditugu erretratu zaharren txokoan.

Gaurkoak ez dira joan zen astekoak bezain famosoak baina, gureak direnez, seguru estimazio

gehiago izango dutela. Erretratua 1943. urtean ataratakoa da eta bertan azaltzen direnak Club Deportivo Elgoibar-ek zuen kroserako taldeko partaideak dira. Zeintzuk ziren izter eta gorputz eder horien jabeak?

Ezkerretik hasita: **Anjel Azkue "Fotero"**, **"Basueta"**, **Felix Etxeberria "Parapan"**, **Enrike Gil "Patri"**, **Juan Izagirre "Upai"** (entrenatzailea), **Luis Lezea, ...**, **Luis Intxaurren** eta **Jabier Zengotita "Patri"**.

**PUBLI
ZITA
TEA**
74 41 12

UDAL
DEBATE
EUSKALTEGIEN
MANKOMUNITATEA
Nafarroa plaza, 2
☎ 74 27 31-ELGOIBAR

"EMAN GOGOR EUSKARARI"

- Matrikula epea irekita urtarrilaren 18tik 31ra arte
- Maila guztiak. LANGABETU ETA IKASLEENTZAT PREZIO BEREZIAK. Beka sistema.
- Informa zaitetz 74 27 31 telefonoan

Krosa 14 iruditan

Azken urteotako krosik euritsu, haizetsu eta hotzenetarikoa izan genuen joan den igandean Mintxetan. Bertara gerturatu ziren ikusleak Juan Mugerza krosaren gogortasunaz jabetzeko aukera izan zuten. Eguraldi eskasa zela eta, inoiz baino ikusle gutxiago bildu zen Mintxetan.



1 Aurten aurkezle berriak izan ditugu. Orain arte Angel Iriondok egindako aurkezle lanaren jarraitzaile izango ditugu Jose Inazio Sarasua eta Juan Luis Sarriguarte. Antolatzaileen arteko barne komunikazioaren eta irudia eta soinuaren arduradun Artegi etxeko Andoni Larreategi izan genuen.

2 Hemen daukagu lasterketako beteranoa. Burgos aldeko korrikalari honek ezin izan zuen lasterketa amaitu lasterketa buruko korrikalariak "doblatu" egin baitzuten.



Euria eta hotzaren aurka **3** kalefazorik ezean, bokadilo ederra eta ardo trago luzea baino gauza hobeagorik ez omen dago. Bestela galdetu elgoibartar hauei.



4 Ez genekien ziur zeintzuk ziren txartel honen atzean egongo zirenak. Zain egon ginen eta **AGINTARIZ** bete ziren txartelaren atzekaldeko eserlekuak. Letra baten gorabeheran zenbat burutazio desberdin!




5 Herriko Gurutze Gorriko taldea goiz osoan zehar edozein larrialdiri aurre egiteko prest egon zen. Bigarren sailkatua izan zen Alejandro Gomez eta Martin Fiz erori egin ziren lasteketan eta Gurutze Gorrikoen laguntza behar izan zuten. Goiza erorketen ondorioz jasandako zauri arinak sendatzen eman zuten.




7 Elgoibarko krozean asko dira batean edo bestean borondatezko laguntza eskaintzen dutenak. Halere, hemen ere bada denen "zuzendari" papera beetzen duenik: berau argazkian ikusten dugun Juan Mari Iriondo.



Senior mailako **8** lasterketako irabazlea Addis Abebe etiopiarra izan zen. Dirudienez, hotzak ez zuen etiopiarrengan eraginik izan, helmuga gurutzatu eta gorputzeko lokatza garbitzera abiatu baitzen atletismo pistako errelera.



Alberto Revuelta eta Santi Maiztegi **6** elgoibartarrak gogor aritu ziren senior lasterketan. Santi 23. postuan sartu zen helmugan eta Alberto 25.ean.



9 Ego-Toki elkarteak Galiziako Jose Gonzalez Margaride korrikalaria omendu zuen. Omenaldian Galizia Etxeko "Xove" gaitajoleek hartu zuten parte. Bezperan, TVEko errealizatzaile den Francisco Sastrek beste omenaldi bat jaso zuen.

ERREPORTAIA

10 Hemen dugu Hellen Kimayo helmugara sartzen. 22 urteko emakume honek izugarizko lasterketa egin zuen. Ez ordea Chemwoyo eta Mosima keniarrek. Hauek lasterketa negargarria egin zuten beraien mailarako. Ego-Tokiko arduradunak oso haserre daude bi korrikalari keniarren jokabidearekin.



Alejandro Gomez, lasterketako 2. sailkatua, hotzak akabatzen helmugaratu zen. Berotu ahal izateko, manta batez estali behar izan zuen gorputza. **11**

13 Junior mailako gizezkoetan C. Garcia, A. Alvarez eta R. Estevez igo ziren Mintxetako podium-era. Argazkian lehengo biak eta Gillermo Garate saria ematen agertzen zaizkigu.



Mintxetako gorabeheren lekuko izan ziren prentsako kideak. Hauek ere eguraldi txarraren ondorioak jasan behar izan zituzten. Esanguratsua da TVEk jarritako 12 kamaretatik 4 izorratu egin zirela eguraldi txarrarengatik. **12**



Emakumezkoen junior lasterketa aurten korritu da lehenengo aldiz. Lehen hori sailkatuak, A. Garcia, Guadarrama eta N. Gago izan ziren. **14**

Hasi pentsatzen



Nor izan
daiteke



1993.



urteko



kirolari



elgoibartar



onena?



Fotero

OKINDEGIA
OPILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34

ZALDUA
ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

Kide

ILEAPAINDEGIA

☎ 74 00 69

San Frantzisko, 19 1 esk.

ITZALA

Edergintza

San Frantzisko, 49 - 1 esk.

Tel. 74 43 03 - ELGOIBAR

BOUTIQUE
DEL PAN

Epanada
Baserriko ogia

B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

ASTE HONETAN

Zergatik izan organu edo odol emale?

Gure inguruan galdetzen digutenean, zergatik hau? edo zergatik bestea? kosta egiten zaigu berehala erantzutea. Pentsatu egin behar izaten dugu. Horrexegatik ondo etortzen da noizbait galdera batzuk egitea geure buruari eta oraingoan bezala galdera hauek egitea: Zergatik naiz odol emalea? Zergatik eskaintzen ditugu gure organuak?

Niretzat erantzuna argia da:

a) Lagun-hurkoarengatik.

Honekin ez nuke nahi irakurleak gizon-emakume on bat bezala ikustea odol emalea. Normalean lagun-hurkoa aipatzen dugunean elizako sermoi bat dela dirudi, baina ez da horrela. Nire ustez, organu edo odol emalearentzat lagun-hurkoa bihar operatu behar duten hura da, gaixotasun bat duena, eta ondorioz, transfusio edo transplante bat egin behar zaiona sendatzeko.

Donanteak bere odola edo bere organuak eskaintzen ditu pentsatuz erabaki honekin bizidun bat salbatzen duela eta hiltzera kondemnatu dagoenari eta bere familiari zoriona emango diola.

b) Norbere satisfazioarengatik.

Besteentzat baliagarri izateak sortzen duen zentzazioa da hau. Odola ematerakoan edo organuak eskaintzerakoan emaleak sentitzen duena da beharrean aurkitzen direnentzat baliagarri dela. Eta gainera protagonista izateko asmorik gabe. Hauxe da eta ez besterik norbere satisfazioa.

Ezin ditut ahaztu arrazoi desberdinengatik ezin direnak izan emale zuzenak eta emale babesle modura laguntza eskaintzen dute-

nak. Lankidetzeta hau osagarria da odol emaleen familia eredu bihurtzeko eguneroko zereginen.

Emale babeslea inportantea da baina emale zuzena bada askoz hobe! Donante egiten bazara hobeto aurkituko zara.

Elkartearen inguruan gabil-tzanok badakigu jende asko ez dela donantea utzikeriarengatik. Halako justifikazioak entzuten ditugu:

- Bai, egunen baten joan behar dut...

- Hurrengoan eman behar dut nire izena.

- Nire ama operatu dute eta aurrerantzean nik ere eman behar dut


- Ba nik ez nekien donanterik zegoenik.

Halako esaldiak beste honengatik aldatu behar dira: Odol emale egitera nator. Aurpegi zorionsuekin hartuko zaituztegu.

Lerro hauek donante egin zaitez balio dezaten nahi nuke. Lerro hauek fruitua emango dute gaurdanik donante berri bat lortzen badugu.

Zeu izango ote?

(Erredakzioan itzulia)



JUAN MANUEL ZUBIAURRE
ODOL EMALEEN ELKARTEKO KIDEA

Organu emalea al zara? eta odol emalea?



M. Vitoria Jauregi
43 urte, etxeko andrea

Ez. Ongi iruditzen zait baina sekula ez jata okurritu. Beharbada parian tokatuz gero eta senideren batek beharra izango balu egingo nintzateke.



M. Angeles Blazquez
34 urte, etxekoandrea

Odol emalea bai, organuena ez... Halere aldekoa naiz, hil eta gero guk ez ditugu ezertarako behar eta norbaiti bizia emateko balio badute, primeran!



Pascual Molina
48 urte, metalurgi mekanikaria

Odol emalea naiz, besteekiko solidaritate apur bat izan behar dugu. Organuei dagokienez, orain arte ez naiz inoiz deziditu.



Iñigo Yudego
28 urte, irakaslea

Organu emalea bai. Beste norbaitek erabili baleizke!. Odolarena, berriz, ez, bildurra edo ematen dit orratzaren asunto horrek, inpresioa, mareoa...



Lidia Iriarte
57 urte, etxekoandrea

Bai, organu guztien emalea naiz, bai eta odolarena ere. Osasuna daukat eta behar duenari laguntzea gustatzen zait, beharbada noizbait nik ere beharko ditut eta.



Jesus Iriondo
28 urte, laminazio ofiziala

Giltzurrunak, gibela eta bihotz emalea naiz. Odolarena ez, ze kriston bildurra diot orratzari. Odola atera behar dotenian ere erdi mareatu egiten naiz!

Kafetegia

DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

■ Bosko Deunaren jaia Mekanikan

Datorren hilaren 28an, Lanbide Heziketarako Institutuko ikasle, langile eta irakasleek Bosko Deunaren eguna ospatuko dute. Ostiral horretarako egitarau berezia prestatu dute. Jaia goizean goizetik hasiko da. Esmatzeko lasterketatxo bat San Antolinetik Mekanikaraino; goizeko 8,30etan izango da. Beranduago, 9etan, ausartenak goiti-beheran jeitsiko dute San Rokeko aldapa. Kirola eguneko protagonista izango denez, mountain-byke lasterketa burutuko da segidan. Lasterketa Institutuan hasi eta Mekanikan bertan bukatuko da. Eguerdi aldera arte, tortila txapelketa, soka tira, arto jokoa eta irakasle eta ikasleen arteko futbito partidua burutuko dira. Eguerdiaren bazkaria izango dute eta arratsaldeko 6,30etarako bertso saioa. antolatu dute Guass dantzalekuan. Bertsolariak Estitxu Arozena, Jokin Solozabal, Jon Maia, German Meabebasterretxea, Iker Agirre eta Joseba Lasagabaster izango dira. Jai eguna Kokoteraino rock taldearen kontzertuarekin amaituko dute.

Zazpiki Irratiak 12 orduko emisioa emango du



Otsailetik aurrera Zazpiki Irratiak zenbait berrikuntza jarriko ditu martxan. Batetik, Mintxetatik zuzenean erretransmitituko dituzte berriro futbol partiduak. Izan ere, Lerunetik Mintxetara egin zen aldaketa medio, eten egin zituzten zuzeneko futbol emanaldiak.

Bestetik, eta beharbada hau da berrikuntzarik deigarriena, goizeko 10etatik gaueko 10ak bitartera etenik gabeko emisioa izango da egunero. Hau da, 12 orduz egunean emitituko du Zazpiki Irratiak. Programazio dagoen egunetan ordu berean, goizeko 10etan, hasiko da emanaldia. 12 ordu hauetan zehar musika jarriko

dute batez ere. Erosi berri duten konpaktoko makina bati esker izango da hau. Makina honek 10 konpaktoko programatzeko ahalmena dauka eta beraz, ez da beharrezkoa pertsona bat musika aldatzen egotea. Hilean behin, musika talde bati buruzko monografikoak egiteko asmoa dutela azaldu dute Zazpikiko irratizaleek.

Aurrera begira albistegiak eta irrati nobela bat egitea ere pentsatu dute, baina oraindik egitasmo hutsa omen da. Berrikuntza hauek finantziazteko gazteen laguntza izan dute ez baitute Zazpikikoek adierazi duteenez, Udalaren aldetik dirurik jaso.



Maria De los Bueys Sanchez dugu erretratuan agertzen den emakumea. Astelehenean bere urtebetetzea da eta BARRENEk ere berarekin egon nahi izan du, baduelako ospakizun honek izaera berezirik: 100 urte betetzen ditu! Datorren astean izango dugu aukera emakume honekin berbetan luzeago aritzeko, bitartean ondo baino hobeto pasa dezazula zure urteguna. Zorionak Maria!

“Hauspoa” akordeoi taldeak lehen saria irabazi du Torrelavegan

Inazio Bereziartua Musikeskolako “Hauspoa” akordeoi orkestak lehen saria irabazi du Cantabriako II. akordeoi txapelketa Nazonalean. Torrelavega herrian burututako txapelketan “Orkesta Nagusi”ko kategorian lehiatu zuten eta “En un mercado persa” izeneko piezagatik lortu zuten lehenengo saria.

Hauspoa orkestaren zuzendaria Maite Janeiro irakaslea da

eta berau, musikeskolako 13 ikaslez osatu dago. Akordeoi joleak hauexek dira: Iñigo Glaria, Amaia Sukia, Ana Arrizabalaga Judith Astigarraga, Itziar Loiola, Zuriñe Agirregomezkorta, Ana Leon, Amaia Gorostiza, Leire Zaldua, Josu Iparragirre, Gorka Regil, Gorka Mujika eta Jon Gurrutxaga. Azken bi hauek ez dira argazkian agertzen beranduago sartu zirelako.



AZKUE

■ Gurasoen Eskola martxan jarriko da

Datorren asteartean, hilak 18, Gurasoen Eskola jarriko da martxan lehen aldiz Elgoibarren. Eskola OHOn seme-alabak dituzten gurasoentzat zuzenduta dago eta honen helburua gurasoek haurren heziketan dituzten kezka eta arazoak aztertzea izango da; bide batez familia mailako prebentzio lan bat burutuz. “Hezitzen” taldeko hezitzaileek emango dituzten klaseetan honako gai hauek jorratuko dira besteak beste: gurasoen eragina seme-alabekiko, seme-alabek euren buruekiko duten irudia, seme-alaben jokabide desberdinak, elkarrizketaren garrantzia prebentzio neurri gisa, atsedean eta aisialdiaren garrantzia. Klaseak Kultur Etxean izango dira eta momentuz bi talde daude: bat arratsaldeko 3etatik 5etara eta bestea 7etatik 9etara. Gurasoen Eskola Udaleko Prebentzio Zerbitzua, “Hezitzen” elkarte eta Ikastetxeen elkarlanari esker sortu da.

Jasone Osoro, BARRENEko kolaboratzaileen arduraduna eta kazetaritza ikasketak egiten ari dena, izan da aurtengo “Eibarko hiria gazteen IX, Ipuin Lehiaketaren” irabazlea, 18 eta 25 urte bitarteko mailan euskaraz.

Aspalditik datorkio Jasoneri idazteko eta irakurtzeko zaletasuna eta sari hau ez da jasotzen duen lehenengoa. Aurten aurkeztu duen lanaren izenburua “Txokolatzeko oroitzapenak” da eta berak esan digunez argazki batzuek ikusiz neska batek beste neska batekin bizi duen maitasun istorioa gogoratzen du”. Epaimahaiaren hitzetan “Jasoneren lana bederatzi edizio hauetan aurkeztu den onena” izan da. Gure partetik zorionak eta segi arrasto beretik.



San Anton ja

San Anton jaiak kitarra kontzertu batekin hasi ziren. Bienvenido Rodriguez eta Juan Carlos Martin izan ziren Udaletxeko Pleno Aretora hurbildu zirenei aparteko kitarra kontzertua eskaini zietenak. Bienvenido kitarra katedratikoa da eta Juan Carlos Elgoibarko Kontserbatorioko irakaslea du. Antolatzaileek esan digutenez, normalean hala ez bada ere, jende asko joan zen kontzertura eta tente entzun behar izan zuenik ere izan omen zen. Halere, tokia ez omen da batere aproposa eta Herriko Antzokia bukatu arte ez daukate beste kontzerturik antolatzeko asmorik.



Antzerki emanaldi batekin eman zitzaion segida jaietako programari. Paparote Antzerki Taldea izan zen Udaletxeko Aretoran hirurogei lagunen aurrean beraien obra erakutsi zuena. Taldea Santurtzikoa da eta lan honetan, beraien arteko haserre sesio batzuk aurkeztu ondoren, panpinekin egiten dute lan.

Larunbat goizean inauguratu zen Elgoibarko Filatelia Elkartek eraturiko XIV. Seilu Erakusketa. Seilu erakusketa honekin Pedro Migel Urruzuno elgoibartar idazlea eta apaiza omentzea nahi izan dute antolatzaileek. Erakusketan Espainiako hainbat puntutatik ekarritako bildumak ikusteko aukera izango du Kultur Etxeko erakusketa aretora hurbiltzen denak. Erakusketa urtarrilaren 23 arte izango da eta bertan ehun bat bitrina daude ikusgai.



iei errepasua



KOKOTERAINO eta HOR KONPON izan ziren larunbat gaueko hotzak eta euriak disimulatzen ahalegindu ziren taldeak. Maalan ezin eta Ikastolako frontoian izan zen kontzertua. Jakin dugunez, KOKOTERAINOkoek herrian jotzen zutela aprobetxatuz, jarraitzaile asko izan omen zuten eta jendeak gustura entzun zituen hasi berria den talde honen kantuak. HOR KONPONekoek ez omen zuten hainbesteko suerterik izan. Jendeak, herrikoekin asetu eta kalera jo zuen Ikastolan hasitako parrandari bukaera kalean emateko intentzioarekin.

Mintxetan korrikalariak lokatza artetik irten ezinik zebiltzan bitartean, Plaza Haundian Artisautza Azoka ikusteko aukera izan zuten bertara joan zirenek. Azokan Euskal Herriko hainbat bazterretatik etorritako artistak egon ziren beraien abileziak erakutsi eta ahal zuten guztia saltzen. Euriak Plaza Haundiko giroa pixka bat itxuragabetu bazuen ere, benetan polita eta interesgarria da urtero fetxa hauetan Elgoibarren egiten den azoka hau.



San Anton egunean aurkeztu zuen Koldo Lizarralde etnografo elgoibartarrak Kultur Etxean "Apuntes Etnograficos en Elgoibar I" izeneko liburua. Urteetan zehar bildutako ohitura, jai eta bestelako kontakizunen bilduma da liburua. Berau salgai dago 1.000 ptatan, eta 500 ptatan gazte txartela izanez gero.

AZKUE

Koldo Lizarralde:

"Lehen jendea elkartuagoa zegoen"

Jaiotzez pasaitarra den arren, lana zela eta bere bizilekua Elgoibarren finkatu zuen aspalditxo Koldok. 44 urteko gizon honek "Apuntes etnograficos de Elgoibar 1" liburua aurkeztu zuen joan zen astelehenean Kultur etxean eta "liburua jendeak irakur dezan eta, era berean,

denok gure ohiturez kontzientzia gaitzen" idatzi du. Bere bigarren liburua da eta bertan gauza bitxi eta interesgarri asko irakurtzeko aukera ematen digu Koldok. Ziur egon apur bat nagusiak garenok ahaztuta geneuzkan gauza asko gogoratuko ditugula.

- Nondik sortzen da liburua idazteko ideia?


- Ni Joxe Miel Barandiaranek sortutako Euskal Herriko etniker taldeetan nago eta guk halako inkestak egiten ditugu Baskoniako Atlas Etnografikoa osatzeko. Talde honetan herri bakoitzari buruzko monografia batzuk egiteko ideia sortu zen, herri hauek bere ohitura eta tradizioetatik jabetzeko.

- Zer da etnografia? Zeri buruzkoa da liburua?

- Etnografia, herri bateko ohitura eta tradizioen ikerketa da. Horregatik atal guztietatik arduratzen naiz, eguneroko bizitzatik harreman sozialetara eta abar.

- Nolakoak ginen lehen elgoibartarrak? Zertan aldatu gara?

- Aldaketa euskal gizarteak jasan duen berdina izan da. Elgoibartarrak, orokorrean, lehen bezalakoak izaten jarraitzen du: gauzak egiteko orduan oso bizia da. Sortu diren enpresa mordoa ikusita nabari daiteke eta baita herriko zenbait pertsonaia historiko analizatuz ere. Elgoibartarra lan asko



"Herri batek nondik datorren jakin behar du, nora joan nahi duen jakiteko".

egin duen pertsona dela argi ikusten da.

- Iragana interesgarria iruditzen al zaizu?

- Nik ikerketa hauek egin baditut, ohiturak jasotzeko izan da. Herri batek nondik datorren jakin behar du nora joan nahi duen jakiteko, hori oso argi dago. Horregatik jaso ditut galtzen doazen ohiturak. Adibidez, gai erlijiosoan rito asko galdu dira eta gu hoiek jasotzen saiatu gara gure bizimo-

dua nolakoa zen jakin ahal izateko.

- Ze ondorio atera dituzu ikerketak burutu ondoren?

- Bizimoduaren eboluzio bera. Lehen koipe asko erabiltzen genuen janariak egiterakoan; gaur egun guztiz kontrakoa da. Osasunari dagokionez ere aldaketa izugarria eman da. Baserrian lan egiteko orduan ere berdin, gaur egun traktoreak eta abar ikus daitezke.

- Kulturalki aurrerantz ala atzerantz goaz?

- Ez dut oso ondo ulertzen zer den aurrera edo atzera egitea. Oso garbi ez daukadan kontzeptu bat da zeren, zer da aurreratzea? Azkarrago bizitzea eta indibidualizazio handiago bat egotea? Nire ustez lehen gizartea elkartuagoa zegoen, jendea elkartuagoa zegoen eta beharra zuenari lagundu egiten zitzaion.

- Ohitura asko galdu al dira? Berreskura al daitezke?

- Askok galdu dira: igandetan plazan egiten ziren dantzak, erromeriak... Ohitura hauek berreskuratzeko herriak berak ikusi behar du behar hori. Baina nire ustez ez dugu atzera begiratu behar egiten zuten hura egiteko, aurrera jo behar dugu iragana kontutan izanik.

- Zentzu horretan elgoibartarrok ezagutzen al dugu gure iragana?

- Ez, ezezaguna zaigu. Adibidez, elgoibartarrak barroteak egiten fama izugarri ona zutelaren esaten baduzu hori inork ez du ezagutzen.

Edu Sanz

BATA ala **BESTEIA**

Pepa Calleja
Fruta saltzailea



- **Zenbat denbora daramazu lan honetan?** ▶ Oso gutxi, 20 urte inguru.
- **Lan gogorra al da?** ▶ Ez. Bezeroak oso jatorrak dira eta entretenitu egiten zara beraiekin hitzegiten.
- **Zenbat ordu tente?** ▶ 8 ordu inguru, batzuetan gehiago beste batzuetan gutxiago.
- **Zer da orokorrean jendeak gehien eskatzen duena?** ▶ Betikoa, sagarrak, laranja... Gaur egun, ostera, jendea beste era batera jaten hasi da.
- **Barazkijalea al zara?** ▶ Bai, batez ere barazkiak jaten ditut, baina ez beti.
- **Txuleta eder baten aurrean zer?** ▶ Ez diot ezetzik esaten.
- **Kolore bat?** ▶ Kiwi.
- **Sukaldean zer moduz moldatzen zara?** ▶ Barazkiak badira ondo baina bestela idearik ez.
- **Musika talde bat?** ▶ Madonna.
- **Gizonak joaten al dira erosketak egitera?** ▶ Bai. Gainera batzuetan emakumeak baino jatorragoak dira.
- **Horoskopoez diotenari kasu egiten al diozu?** ▶ Bai itsu-itsuan. Baina ez egunkarietan agertzen direnei, konplexuagoak direnei baizik.
- **Telebistako programa gustukoena?** ▶ Orain programaziotik kendu duten "La cuarta dimension".
- **Nora joango zinateke oporretan?** ▶ Berlinera.
- **Zeri begiratzen diozu pertsona bat lehen aldiz ikustean?** ▶ Begiei, engainatzen duten ala ez jakiteko.
- **Kiroliek egiten al duzu?** ▶ Bai, yoga eta footin-a.
- **Zer dakarkizu burura ekologia hitzak?** ▶ Itsasoan, airean, mendietan ikusten ez duguna.
- **Geroarte ala Agur?** ▶ Batzuei agur, agur betirako, baina beste batzuei beti geroarte.

Isabel Ansola

Jose Luis Ansola
(Txanbolin) 1855 - ...?



- 1855. urtean jaio zen pilotari hau.
- "Erroketxo" txanbolin jole ezagunaren semea; berak ere danbolina jotzen zuen, hortik datorkiolarik "Txanbolin" gaitzizena.
- Libra erdiko pilota zen bere espezialitatea.
- 1887an, Markinako Garateren aurka jokatu zuen partidu batean, azken tantoak zazpi minutu iraun zituen eta ehun eta zazpi pilotada eman zizkioten.
- Pilotaren "Aro berria" sortu zen bere garaian. Esku-pilotaren gaintetik pala eta zesta jokua hasi ziren nagusitzen eta, hoiekin batera, pilotari gazteak Ameriketara joaten hasi. "Txanbolin"ek, ordea, herrian jarraitu zuen, esku-pilotaria afizioz eta postaria ofizioz.



*Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu
BARRENEK sentimenduan laguntdu eta eskelek, urteurrenak
edo esker onak azaltzeko toki bat eskeintzen dizu.*

MOTZAK

Eskubaloi Taldearen zozketa

Hilaren 17an San Anton egunez egin zuen Elgoibarko Eskubaloi Taldeak mendiko bizikletaren zozketa. Zozketan ateratako zenbakia 1.479 da eta erreserbakoa 2.023. Zenbaki sarituaren jabeak hilabeteko epea du saria jasotzeko.

Elgoibar K.E. futbol talde guztiak Mintxetan

Mintxeta inauguratu zenetik aste bukaera honetan lehen aldiz futbol talde guztiak jokatu dute etxeko futbol zelaian. Kategoria guztietako taldeek jokatu dute etxean aste honetan.

Bitxikeri modura beste datu bat: Mintxeta zabaldu zenetik 85 partidu jokatu dira bertan.

Eski ikastaroa

Ibai gimnasioak Ezcaray-ko eski estaziora irteera antolatu du larunbat honetarako, hilak 22. Asmoa eskiatzen ikastea da. Prezioa 3.500 pezetakoa da bidaia eta erremontek barne. Ikastaroa eta eski ekipoa aukerakoak dira. Informazio gehiagorako deitu 74 07 93 edo 74 27 06 zenbakietara.

Patxi Arriola:

"11 urterekin bota naban estraineko oilagorra"


■ **Zer da ehiza zuretzat?** - Joko antzeko bat. Partehartzaileak animalia eta pertsonak dira. Pertsonak abantaila dauka, bere bizitza ez baitu arriskuan jartzen, halere, gehienetan animaliak irabazten du.

■ **Noiz eta nola hasi zinen?** - Gehienak bezala aitarekin, ume bat nintzala. 11 urterekin bota naban estraineko oilagorra. Gure etxian jaixa egin zan orduan, erretatua eta dana dakat oilagorra dakatela eskuan, ixa ni baino haundiagoa! Gero txorixa diseatu egin gendun eta han daukat etxian, trofeo bat bezela.

■ **Ze eragin dauka txakurrak?** - Dana. Zuk txakurra ehizatu behar duzun tokira eramaten duzu baina gero txakurra da zu gidatzen zaituena oilagorra edo bestelakoak dauden lekuetara.

■ **Non ibiltzen zera ehizan?** - Elgoibar inguruan. Hemen oilagorak, azeriak eta basurdeak daude batez ere. Jendeak usten daban baino basurde gehiago dabiz inguru hauean.

■ **Ehiztaria ala eskopeteroa?** - Ehiztaria. Eskopeteroa mendira tiroa



botatzera doa, ehiztaria beste gauza askotara.

■ **Orain dela gutxi ehiza torneo batean hartu duzu parte, kontaguztu.** - Bai, Estatu Espainiarreko oilagor txapelketa izan zen, Jakan. Laugarren gelditu nintzan bigarren eta hirugarrenarekin batera. Goiz osoa moskeatuta pasatu naban epaile ganoragabeko bat jarri zidaten eta. Ezin ninduen jarraitu, edo ez zuen jarraitzerik nahi. Denbora gehiago pasatu naban bera zaintzen txakurra zaintzen baino.

■ **Gazte batek ehizan hasi nahi badu?** - Gaur egun oso zaila dauka, zail-zaila. Gutxi dago, garestia da eta gainera geroz eta gaizkiago dago ikusita.

■ **Zer esango zenieke ehizaren aurka daudenei?**

- Askotan jardun dot, bakoitzak bere arrazoiak dauzka. Nere lema "bizi eta utzi bizi izaten" da, baina asuntua hemen hitz gutxitan esan daitekeena baino askoz konplikatuagoa da.


Ehizatutakoa batzuetan saldu egiten duen arren bestetan etxian jaten omen dute, amak prestatu eta gero. Nahiago du bakarrik ehizatzea bere kontura ibiltzeko. Ehizako eskopetak ezezik, gainontzeko armak ere gustatzen zaizkio.

INTERIORES

BARRUIEN DEKORAZIORAKO ESTUDIOA

- Proiektuak eta erreformak
- Lokal komertzialak eta etxebizitzak
- Obren zuzendaritza eta gramioen koordinakuntza
- Neurriera egindako altzariak

Errosario 15. ELGOIBAR ☎ 74 40 19 / 55



MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

San Anton Pilota Jaialdia

San Anton jaien barruan ospatu zen pilota Festibalean Ikastolako frontoia jendez gainezka egon zen. "Lagunak Pilota Eskolak" antolatua, aurten ez dute ohizko Torneoa ospatu, aurrekontuekin arazoak izan baitituzte, hortaz, Jaialdia ospatu beharrean aurkitu dira.



■ ■ Hona hem, en epaileak eta Muruamendiaraz eta Matxain partidua hasi aurretik.

Semifinal eta finalak hiru egunetan zehar jokatu beharrean egun bakar batean izan ziren guztiak. Antolatzaileek bazuten beldur pixkat jende gehiegi inguratuko ez ote zen, baina oso pozik daudela aitortu digute, Jaialdiak harrera

ezin hobea izan du eta. Ikusleekin ezezik pilotariekin ere oso gustura omen daude Lagunak taldekoak, izan ere, aurten pilotari batzuek eurak deitu omen dute, iazko esperientzia oso ona izan zela eta, aurten ere, San Anton jaietako Torneoa parte hartu nahiko luke-

tela esanaz. Balorazioa erabat positiboa, beraz. Euskal herriko pilotari onenatarikoak bildu ziren

Ikastolako frontoian gipuzkoarrak ezezik, baita bizkaitar, nafar eta errioxa aldekoak ere.

EMAITZAK:

- **Eskuz banakakoak**
Muruamendiaraz **22** Matxain **14**
- **Eskuz binakakoak**
Arroyo-Dani **22** -- Ubera-Almandoz **16**
Muguruza-Imaz **22** -- Berasaluze VII-Bazeta **21**

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan

Larunbata 15

- 10,00: Elgoibar - Orereta (Infantilak)
- 12,00: Elgoibar - Urola (Kadeteak)
- 14,00: Urki - Mutriku (2. erregionala)
- 16,30: Haundi - Durango (Klubaren eguna)
- 18,15: Elgoibar - Urola (2. erreg.)

Igandea 16

- 10,00: Eibar (Urko) - Almen (Jubenilak)
- 12,00: Elgoibar - Dunboa (Neskak)
- 14,00: Eibartarrak - Urola (Jubenilak)
- 16,00: Elgoibar - Euskalduna (Jubenilak)
- 17,45: Eibartarrak - Trofeo Amistad (Neskak)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Ostirala 21

- 22,30: Elgoibar - (Zehaztu gabe) (2. maila)

EMAITZAK

ESKUBALOIA

- Elgoibar 11 - Usurbil K.E. 20 (Neskak)
- Elgoibar 34 - Don Bosco 15 (Jubenilak)

ARETO FUTBOLA

- Elgoibar 3- P. Ateak 2 (1. maila)

FUTBOLA

- Ordarru 1 - Haundi 1
- Elgoibar 0 - Lagun Onak 1 (2. erregionala)
- Union Txiki 3 - Elgoibar 0 (Jubenilak)
- Aitzgorri 1 - Elgoibar 0 (Kadeteak)
- Sporting de Herrera 1 - Elgoibar 0 (Infantilak)
- Mondragon 6 - Elgoibar 1 (Neskak)

Argia: Fedea sendotu otoitzaren bidez

Argia taldea duela bederatzitauro urte jaio zen. Herriko sei gazteek, 20 urte ingurukoak denak, erlijio munduko akanpada batean izandako esperientziaren ondoren beraien artean biltzen hasi ziren Jainkoa goratu eta fedea aberasteko. Hortik Argia taldea sortu zen.



■ ■ Adin guztietako kideak dauden arren, gehientsuenak gazteak dira.

H aseran nahiko informala bazen ere, Santa Klarako komentuko Maria Jesus superiorak otoitzean lagundu zien. Horrela, astero biltzen hasi ziren eta kanpoan zenbait akanpada eta ekintzatan parte hartu ondoren, Argia elkarte bezala gorpuztu zen. Gutxi gora behera 15 bat ziren.

Taldearen ezaugarrietako bat, kideen gaztetasuna eta jatorriaren aniztasuna da. 20-65 urte bitarteko gizon zein emakumeek osatzen dute

gehienbat gazteek eta, tartean, sekular, monja, langabetu, jubilatua, ezkondu zein ezkongeeak daude. Taldea irekia da guztiz, eta nahi duenak atea zabalik dauzka.

Gaur egun, asteartero 8etan biltzen dira Santa Klarako komentuan eta pare bat ordutan otoitz egin eta Jainkoa goratzeari ekiten diote. Beraientzat, otoitza gorazarra da. Bapateko otoitza egiten dute, aurretik prestatu gabekoa eta Jaunaren hitzean oinarritua. Beraiek esan diguten bezala, fedea

bultzatutako ekintza da. Taldeak Jesusengan fedea sendotzeko eta aberasteko balio izan die.

Otoitzaz gain, bilera orduetan kristau ikasbidea lantzen dute.

Argia osatzen dutenak parrokiako kide ere badira eta beraz, sendotzan, osasun pastoralean, liturgian, kristau ikasbidean eta astialdiko taldeetan laguntzen dute.

Argia taldea "Renovacion en el espiritu" deritzon talde katolikoa-ren barruan dago. Beste herri eta nazio askotan ere, ildo bereko taldeak

daude eta denen artean harreman estua dute. Urtero gazteentzako hainbat akanpadatan parte hartzen dute, Gabonetan, Aste Santuan eta uda bukaeran. Datorren topaketa otsailean izango dute, Loiolan.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1984

Kide kopurua: 30

Kontakturako

telefonoa: 74 08 11

(Yolanda)

Iharduera: Otoitza

Lokala: Santa Klara komentua



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



Ametsa

TABERNA

San Inazio, 2 ☎ 74 27 22 ELGOIBAR

282 lan "Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketeta"n

Elgoibarko ikastetxeetan euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna piztu nahian antolatzen den idaz lehiaketa honek, aurten ere erantzun paregabea izan du.

Antolatzaileak benetan gustura gelditu dira, aurtengoan iazko kopurua gáinditzea lortu baitute. Partehartzaileak 282 izan dira, 106 Etxegiña Bertso Paper Lehiaketan eta 176 Prosa Lehiaketan.

Sari banaketa ekitaldia hilaren 19an izan zen eta gainezka egon zen Ikastolako aretoa. Idaz Lehiaketan sari banaketa ezezik, Peter Roberts-en orduerdiko mimo emanaldiaz gozatzeokaukera ere izan zuten gaztetxoek. Antolatzaileek esan digutenez, aurten literatur aldizkari bat ateratzeko asmoa daukate idaz lehiaketetan sarituak izan diren lane-



■ ■ Hauek dira aurtengo "Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketa"n sarituak.

kin. Aste Santurako eginda egongo omen da eta ikastetxeetan banatzea da beraien asmoa.

Bukatzeok esan, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkietela

batera edo bestera beraien laguntza eskaini dutenei. Datorren urtean ere fetxa hauen bueltan izango dugu Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketan berri.

XIII. ETXEGIÑA BERTSO-PAPER LEHIAKETA

A MAILA (82 lan): OHOkok 5-6 mailak.

- Txapelduna: Goiatz Leibar, txapela eta 8.000 pzta.

- Bigarrena: Esther Gurrutxaga, 4.000 pzta.

B MAILA (19 lan): OHOkok 7-8 mailak.

- Txapelduna: Zuhaitz Gurrutxaga, txapela eta 15.000 pzta.

- Bigarrena: Lore Agirreazaldegí, 7.000 pzta.

Arantza Ramos: 7.000 pzta.

C MAILA (5 lan): 14-18 urtekoak.

- Txapelduna: Irati Agirreazaldegí, txapela eta 30.000 pzta.

- Bigarrena: hutsik.

Epaimahaia: German Meabebasterretxea eta Izaskun Elizburu.

VIII. PROSA LEHIAKETA

A MAILA (81 lan): OHOkok 7-8 mailak.

- Irabazlea: Jon Garate, txapela eta 10.000 pzta.

- Bigarrena: Josu Gabilondo, 5.000 pzta.

B MAILA (80 lan): ertainak 1-2 mailak.

- Irabazlea: Luzia Zubiaurre, txapela eta 30.000 pzta.

- Bigarrena: Unci Bravo, 15.000 pzta.

C MAILA (15 lan): ertainak 3-4 mailak.

- Irabazlea: Mikel Artola, txapela eta 40.000 pzta.

- Bigarrena: hutsik.

Epaimahaia: Asier Etxaniz eta Jasone Osoro.



AZPELETA

elektrizitatea

San Frantzisko 51, behea. Tel: 74 12 38

TXURI

Taberna

BELTZ

San Franzisko 38

22 LARUNBATA

12,20 CCOO-EN HITZALDIA

Gaia: 27ko greba
 Hizlariak: Santiago Bengoa
 (CCOO-ko Idazkari Nagusia) eta
 Ovidio Canpeyo (Gipuzkoako
 Idazkari Nagusia).
 ✓ Kultur Etxean.

16,20 GARE IRRATIZALETUEN BILERA

✓ Kultur Etxean.

23 IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

"Labios ardientes"

Zuzendaria: D. Hopper
 Aktoreak: D. Johnson, V. Madsen, J.
 Conelly.
 ✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
 Antolatzailea: Ongarri zine kluba

24 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Labios ardientes"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
 Antolatzailea: Ongarri zine kluba

25 ASTEARTEA

15,00 GURASOEN ESKOLA

OHO seme alabak dituzten
 gurasoei zuendua
 Antolatzaileak: "Hezitzen",
 ikastetxeak eta Udaleko Prebentzio
 Zerbitzua.
 Hizlariak: "Hezitzen" elkarteko
 hezitzaileak.
 ✓ Kultur Etxean.

19,00 GURASOEN ESKOLA

✓ Kultur Etxean.

28 OSTIRALA

19,00 IKASTOLAKO JAIALDIA

✓ Ikastolan

ZINEA

"Labios ardientes"

Itxura on eta lasaia duen
 atrakatzailerik bat zirrararik
 gabeko bizitza daraman Texaseko
 hiri motel eta ilun batera iristen
 da. Kotxe denda batean hasten da
 lanean eta neskatxa gazte bat
 maitemintzen du. Era berean,
 jauntxo aberats baten
 emakumearen besoetan erortzen
 da. Emakumeak, senarraren
 txanponak beste behar ditu
 lapurraren muxu goxo eta
 sutsuak.

ZINEA

GESTIORAKO FORMAZIO ETA BERRIKUNTZA PROGRAMA

I K A S T A R O A K

FAMILIARTEKO ENPRESEN ZUZENDARITZA ETA GESTIOA

(Urtarrilaren 28 eta 29an)
 (13 ordu)

* Familiarteko Enpresetako
 zuzendariei zuzendua,
 enpresa bakoitzeko pare bat
 kidek izena ematea
 gomendatzen da.

Irakaslea: Carlos A. Ferrari.
 NORMA Ikaskuntza eta Formazioa-
 ko Bazkide eta Zuzendaria.

ENPRESA GESTIOKO AUDITORIA- DIAGNOSTIKOA ETA HOBEEKUNTZEN AUKERAK

(Otsailaren 21 eta 22an)
 (16 ordu)

LKS-k emanak.

ZUZENDARIENTZAKO AGINTARITZA FORMAZIO IKASTAROA

(Otsaila, martxoan eta
 apirilean) (100 ordu)

* Enpresa antolakuntza eta
 erakundeetako zuzendariei
 zuzendua. 25 lagun
 gehienez.

Irakaslea: Migel Ayerbe.
 DEIKER-eko Zuzendaria.
 Deustuko Unibertsitatea.

ANTOLATZAILEA
 ETA
 INFORMAZIOA:

GESTIO ESKOLA
SUP'T.G.
 Ecoles Supérieures des Techniques de Gestion

LAGUNTZAILEAK:

- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO EKONOMIA SAILA
- SPRI
- EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Etxebizitzak

Baserri bat hartuko genuke
Tel.: 76 62 64. Imanol

Etxebarrin etxebizitza berri
bat dago salgai. 87 m²
Sukaldea, 3 logela, egongela
bat, 2 bainu gela, ganbara,
terraza eta garajea.
Tel.: (943) 70 12 71

Pisu bat salgai. Ubitarte 11.
zenbakian.
Tel. 74 12 07
(Iñaki - Mertxe)

Etxe bat saltzen dut Urasandin.
1. pisua.
Tel: 75 51 69

Etxe bat daukat alokatzeko.
Altzariak dauzka. Pedro Migel
Uruzuno kalean (Olatz altzari
denda ondoan).
Tel.: 74 08 09
3,30etatik - 7,30etara.

Lana

Aizu etxeokandre!, perfumeria
apainketa eta kosmetikan ari
den frantziar multinazional
batek emakumezkoak behar
ditu. Salmenta zuzena. Diru
etorri oso ona. Muestrario
bikaina publizitatez lagundua.
Aukera ederra zuretzat.
**Deitu arratsaldeko 7etatik
aurrera (948)51 05 06
zenbakira.**

Matematika, fisika eta kimika
klaseak ematen dira BUP, COU
eta FP. Gaztelaniaz.
Javier Telf: 74 13 11

Salerosketak

Ford Fiesta 1.400 CLX bat
saltzen dut. 4 urte. SS-AF.
Tel.: 74 07 11 Tomas

Gasezko estufak erosi
nituzke. Telf: 74 08 95 Maite

Frigorifiko bat erosi nuke.
Ate indibidualdun kongeladore
txiki batekin. Tel: 74 13 38
Eguerdian deitu

Bigarren eskuko Renault 12
Bi- 1988 Y salgai.
Prezio egokia.
Tel.: 74 41 32 Fernando

OPEL CORSA GT 3 ate SS-
AH saltzen da. Tel.: 74 01 17

San Roke auzoan garaje bat
daukat alokatzeko.
Telf: 74 33 78

Bestelakoak

ZORIONAK ALBERTO !!
41 urtean hainbeste kosta dena
ez al da aurten alperrik
galduko!. 42 egitean ere ekarri
pastelak eta txanpana.

Urrezko katea eta medaila
aurkitu ditut Mintxetan.
Deitu 74 19 21 zenbakira

Domekan, hilak 16, 12,30etako
mezetan, guardasola aldatu
zidaten. Guardasola urdin iluna
da eta arraixa gorri txiki
batzuek dauzka. Hartu zuenak
dei dezala aldaketa egiteko.
74 14 55

Abenduaren 29an, elizako
arkupeetan mendiko txamarra
urdin bat desagertu zitzaidan
7ak eta 7,15 bitartean. Aurkitu
duenak dei dezala
74 12 61era. Joseba

Abenduaren 23ko arratsaldean
urrezko domina galdu nuen
Arrillaga eta San Bartolome
kaleen artean. Inizialak:
aurrean A.G.eta atzean ARH +
74 10 68 Ane

Tango baloi bat galdu nuen
Lerungo aparkalekuan.
Norbaitek aurkitu badu
mesedez deitu.
Tel. 74 14 78 Hodei

Karitasek familia bati emateko
erropak gordetzeko armairu bat
behar du. **74 15 09 / 74 12 57**

ROKE TABERNA

Goizeko 9etatik irekita

**EGUNEROKO
MENUAK**

- ♠ Despedidak
- ♠ Urtebetetzeak
- ♠ Kazuelatxoak
- ♠ Ogitartekoak
- ♠ Etab...



ERRETXINDI AUZOA, 1. ELGOIBAR



IRIONDO KIROLAK

MENDI, ESKALADA eta KIROL GUZTIETARAKO EKIPAMENDUAK



- Gazteak kirola egitera bultzatzeko prest gaude
- Gazte txartelarekin %10 beherapenak
- Erakusketa berria San Frantzisko, 54.

BEHERAPENAK!